

aurkibidea

1. Aurkezpena

2. orrialdean

2. Inmigrazioa-emigrazioa

3. orrialdean

3. Estereotipo eta aurreiritziak

11. orrialdean

- 3.1 Zer dira estereotipo eta aurreiritziak?
- 3.2 Ditugun aurreiritzi eta estereotipoak identifikatzen ikasten
- 3.3 Pentsatu era positiboan
- 3.4 Zergatik ikusten dugu ezberdintasuna persona batzuetan soilik?

4. Pertsona bakoitzaren identitatea baloratzen

17. orrialdean

5. Kulturartekotasuna eta bizikidetza

19. orrialdean

- 5.1 Nola identifikatu kulturartekotasuna?
- 5.2 Ezberdintzeak ezberdintasuna dakar
- 5.3 Giza eskubideak ziurtatzen dituen bizikidetza
- 5.4 Elkarbizitzak dakartzan gatazkak... negatiboak al dira?
- 5.5 Kulturartekotasunerako praktikak

6. Glosarioa

27. orrialdean

Seguruenik, mugitzen zaren tokietan kulturartekotasuna hitza sarritan entzun duzu. Kontzeptu hau askotan kulturantzitasunarekin nahasten da.

1. AURKEZPENA

Baina, gauza bera al dira?
Zer esan nahi dugu
kulturartekotasuna esaten
dugunean?

Gidarekin buru belarri
hasi aurretik, argitu
ditzagun hain egungoak
diren kontzeptu hauek.

Ba al
zeneki
en...

Kulturantzitasuna esaten zaio talde kultural ezberdinak eremu berean bizi direnean eta ...

- Kulturetako batek besteak baino garrantzi gehiago hartzen duenean.
- Kultura nagusiak elkarbizitzarako eredu bakarra moduan onartzen denean.
- Beste kulturak, baztertuta egotearen sentimenduak bultzatuta, haien artean elkartzen direnean.
- Kultura minoritarioak eguneroko elkarbizitzatik islatuta egoten direnean.

Egoera hau herrialde gehienetan gertatzen den errealitatea da. Entzun al duzu zerbait New York-eko Chinatown-ari buruz? Eta Berlineko auzo turkoari buruz?

Eta Durangon, errealitate hau aurkitu dezakegula uste al duzu?

Kulturantzitasunak kultura ezberdinen elkarbizitza onartzen badu ere, ez du ezberdintasuna eta kultura batzuen eta besteen baztertzea amaitzen laguntzen.

Kulturartekotasuna aldiz, pertsonen arteko erlazioak ulertzeko modu bat da, eta gizarte justuago eta baita baketsuagoak diren gizarteak lortzeko etengabe eraikitzen den prozesua.

Kulturartekotasunean...

- Modu horizontal eta sinergikoan erlazionatzen gara.
- Pertsona bakoitza bere berezitasunengatik baloratzen da (kultura, nortasuna, hizkuntza, usteak ...), hau gutxietsi gabe.
- Errespetutik eta berdintasunetik erlazionatzen gara.
-

2. EMIGRAZIOA IMMIGRAZIOA

Kulturartekotasunez hitz egiten badugu, gure begirada ireki eta erlazionatzeko dugun era **perspektiba askoz zabalago** batetik enfokatu behar dugu.

Kulturartekotasuna entzuten dugunean, automatikoki erlazionatzen dugu immigrazioarekin, hau da, beste herrialdeetatik datozen pertsonekin. Baian kulturartekotasuna, immigrazioarekin zerikusia badu ere, **ez da inolaz ere hor geratzen!**


*Kulturartekotasuna herritar guztien errespetuan oinarrituriko gizartea eraikitzen saiatzen da. Bakoitzak izan nahi duena izateko eskubidean oinarritzen da, bakoitzak besteekin erlazionatzeko dituen sinesmenak, baloreak, ohiturak, hizkuntza, etab. arriskuan jarri gabe, beti ere bakoitzaren bagaje eta ibilbidea kontutan hartuz, autoktonotzat hartzen denaren antzekoa izanda edota guztiz kontrakoa izanda ere. Gainera, kulturarteko elkarbizitza bi norabide dituen prozesu dinamikoa da, **aldatu egiten dena gizartea aldatzen delako!***

Pentsa ezazu nolakoa den Durango gaur egun, eta imaginatu nolakoa izango zen zure aiton-amonon garaian... nolakoa iuste duzu izango dela 20 urte barru?

Egia esan, jendea joan eta etorri egiten da, eta hori betidanik egin da. Batzuetan behin behineko mugimenduak dira, besteetan behin betikoak. Agian jende berria egongo da zure eraikuntzan, hemengoak ala hangoak, eta agian zu ere noizbait beste toki batera joango zara, auzokide berria bihurtuz. Pentsatu adibidez, zure familian edo inguruko jendean. Seguru emigratu behar izan duen norbaiten istorioa ezagutzen duzula.

Beraz, kulturartekotasunaz hitz egiten hasi ahal izateko, **migrazio mundialak** deituriko fenomenoan murgildu beharko gara lehenengo, askotan gizakiaren ezaugarri naturala dena urruneko zerbait bezala ikusten dugulako.

Aurkitu mila eta bat ezberdintasunak!!



Ezkerreko mapan herrialdeen inguru geografiko normala ikusten da.

Eskumako mapan, bere migrazio mugimenduarekiko proportzionala den inguru geografikoa ikusten da. Gero eta jende gehiagok emigratu, inguruaren distortsioa lortzen da, gero eta jende gutxiagok emigratu, estutzen da.



Zein da zure ustez munduko migrazioen errealitatea?

Mundutik nola mugitzen garen ikasteko klikatu ezazu ondorengo linka!

[http://
www.iom.int/cms/en/
sites/iom/home/about-
migration/world-
migration.html](http://www.iom.int/cms/en/sites/iom/home/about-migration/world-migration.html)

Urrunago joan gabe, hemen Euskal Herrian, mendeetan zehar pertsona asko egon ziren emigratzera behartuta, batez ere Europako beste herrialdeetara eta Ameriketara.

Euskal diaspora zabala da eta mundu osoan zehar aurkitzen da. Pertsona hauetariko asko, nahiz eta beste kontinente batzuetan jaio diren, euskal kulturarekiko eta euren arbasoen ohiturekiko lotura handia sentitzen dute, eta kultura honekin erlazionaturiko ekintza ezberdinak egiten dituzte.

Euskal etxeak

Euskal etxeak Eusko Jaurlaritzak ofizialki erregistraturiko euskal zentroak dira, 25 herrialde ezberdinetan daude! eta guztira 187 zentro daude! Euskal Etxeetan jendea euskara ikasi edo hitz egiteko elkartzen da, euskal kulturarentzat bereziak diren egunak ospatzeko, esperientziak konpartitzeko ...

Hemen duzu informazio gehiago:

<http://www.euskaletxeak.net/>

Gaur egun antzeko zerbait ari da gertatzen,

entzun al duzu inoiz “aditu-ihesa” terminoa?

Azken urteetan mundu mailako krisia dela eta, gazteen portzentaje altu batek emigratzea erabaki du, ikasi dutenarekin erlazionaturiko lana aurkitzeko esperantzarekin edo bizitza hobeago bat izateko asmoz.



Ba al zenekien herritarren plataforma eta plataforma profesional ugari daudela egoera honek gazteak lan baldintza txarrak dituzten lanak hartzera bultzatzen dituela uste dutenak?

Hauetariko plataforma batzuk hemen aurkituko dituzu:

✓ <http://www.nonosvamosnosechan.net/>

✓ <http://www.indignado.org/>

Egia esan, objektiboak bagara, mundu mailako migrazioei buruz dugun informazioa oso mugatua da eta normalean immigrazioak eta honek dituen konnotazio negatiboek eklipsatuta egoten da.

Ezin dugu ahaztu txanpon berdinen beste aldeak emigrazioak direla!

Kontzeptuak birpasatzeko...

Emigrazioa

Prozesu honen bidez persona batek bere herrialde edo lurraldea uztea erabakitzen du, beste batean ezatzeko. Emigratzeko arrazoirik ohikoenak izaten dira:

- Arrazoi sozial, politiko erlijioso edo identitate sexualagatik euren herrian jarraituak izateagatik.

- Baliabide naturalen agertze edo desagertzeagatik
- Bizitzan aukera hobeak izateko grinagatik.
- Ingurumen arrazoiengatik (katastrofe naturalak, etab...)

Adituen ihesa

Ahalmenak edo talentuak dituzten pertsonen emigrazioa, gatazkak edo aukeren falta dela eta.

Immigrazioa

Prozesu honen bidez nazionalak ez diren pertsonak herrialde batean sartzen dira bertan ezartzeko

Adituen irabazia

Ahalmen edo talentuak dituzten pertsonen immigrazioa.

■ iturria: <http://www.iom.int/cms/es/sites/iom/home/about-migration/key-migration-terms-1.html>

Migrazio fenomenoek dugun informazioa telebistatik, egunkarietatik, internetetik eta baita mugikorretatik eta sare sozialetatik heltzen zaigun informazioak baldintzatuta egoten da.



Komunikabideek erantzukizun handia dute, batez ere immigrazioari buruz dugun ideiari dagokionez, izan ere errealitatearen zati konkretu eta desitxuratua erakusten digute!

Ezagunak egiten al zaizkizu titular hauek?

%58 uste dute gizarte babesaz aprobetxatzen direla etorkinak

Andre etorkinei buruz galdeketa egin du Euskal Jaularitzak; herritarren %45ek ez diote balioa ematen haien lanari

(Berria egunkaria, 2012ko maiatzak 10)

150 inmigrantes, atrapados entre las vallas de Melilla tras un salto masivo

Unos 400 subsaharianos han intentado entrar en Melilla (...) en un salto masivo de la triple valla fronteriza que separa España de Marruecos

(El País, 18 de junio del 2014)

El 64,9% de los vascos cree que los inmigrantes se benefician en exceso del sistema de protección social

Sólo un 7,2% lo menciona espontáneamente entre los tres primeros problemas de Euskadi.

(El Diario Vasco, 10 de junio del 2014)

Uste duzu beste kulturei buruz eratzten dugu iritzia erreala dela?

Ez zaizu susmagarria iruditzen gizarteak orokorrean immigrazioari buruz duen iritzia negatiboa izatea?

ZERGATIK USTE DUZU GERTATZEN DELA?

Zure eguneroko bizitzarako aplikazio berria aurkezten dizugu:

“susmotrometroa”!

Susmetrometroa baieztapen bat mundu guztiak errepikatzen duenean aktibatu behar dugun pilotu automatikoa da

Funtzionamendua: Zure inguruan, telebistan, sare sozialetan, etab. ideia bat behin eta berriz errepikatzen denean ...
Susmometroa aktibatzeke garaia heldu da!!!
Zeren ... ez al da arraroa mundu guztiak gauza bera pentsatzea?



Susmometroak susmarazten bazaitu ...
errealitate objektiboagoa aurkitzeko
beste iturri batzuetan ikertzeko garaia heldu da!
Ikusiko duzu zein ondo funtzionatzen duen!

Normalean komunikabideetatik iristen zaigun informazioa...

Partziala izaten da: komunikabideetan agertzen diren migrazioetan “hegoaldeko” pertsonak “iparraldekoak” deituriko herrialdeetara iristen dira. Horrela, immigrazioaren pisua askoz handiagoa ematen du.

“Gu, iparraldekoak” “haiek, hegoaldekoen” kontra jartzen dituen arrazoibidea eratzen du. Eskualde-arte migrazioez aldiz ez du hitzik egiten: Migrazio gehienak Europako herrialdeen artean gertatzen dira!

Gainera, berria den eta konponbidea behar duen fenomeno izango balitz bezala aurkezten da, baina ... betidanik gertatu den fenomeno da!

Orokortzeko ohitura dute, pertsona immigrante guztiak sako berean sartuz. Askotan informazioa zifrekin batera agertzen bada ere, portzentaje bat ez da migrazioen errealitatea erakusteko material nahikoa. Zifra horien atzean bizitza eta esperientzia ezberdin asko daude.

Jarriezu aurpegia!

**Bideo hau ikusi
nahi?**



<https://w.youtube.com/watch?v=ySgpQ3d37fk>

Ikusitako jendea Madrilgoa izatea espero zenuen?

Bideoaren helburua ikuslearengan harridura sortzea da. Izan ere, lehen minutuetan agertzen diren irudiak komunikabideek “hegoaldeko” herriez hitz egiteko etengabe erabiltzen dituztenak bezalakoak dira! Horrela, behin eta berri irudi konkretu batzuk eta titular zehatz batzuk jasotzean, immigrazioari buruz eta orokorrean migrazioei buruz dugun ideia distortsionatua eta errealtatetik urruna bihurtzen da.

Lehen aipatu dugun bezala eta bideoan ikusi den bezala, denok daukagu inoiz migratzeko aukera. Gustatuko litzaiguke horrela tratatzea? Arazo bat edo estorbo bat izango bagina bezala eta ez garen pertsonak bezala?

Arrazoi ezberdinak egon daitezke migratzeko, baina beti dago bizi baldintzak hobetzeko grina. Kasu askotan, migrazioa esperientzia gogorra izaten da. Badaude pertsonak, euren ahalmenak garatzeko aukerarik ez dutelako edo euren giza eskubideak errespetatzen ez direlako haien familia, lagunak, ingurua, hiria, etab. uztea erabaki behar izaten dutenak. Badira baita oso muturrekoak diren egoerak, esaterako zure joera edo identitate sexualagatik ihes egin behar izatea (homosexualitatea, transexualitatea, bisexualitatea, intersexualitatea).

Imajina dezakezu?

*Zergatik ez diozu noizbait
emigratzeko baharra izan zuen
norbaiti bere istorioa kontatzeko?*

Komunikabideek, immigrazioari buruz dugun irudia estereotipo eta aurreiritziz beteta egotea laguntzen dute. Jasotzen dugun informazioa oso urrun egoten da errealitatetik.

Nola eragiten digu honek gure eguneroko bizitzan?

Ba adibidez gure eguneroko erlazioetan, leku ezberdinetatik datozen inguruko jendearekin. Aurrez aldetik eraturiko ideia hauek erlazioak baldintzatu ditzakete, eta horrela, gure inguruan ikasitako ezaugarri kulturaletatik “ezberdinak” diren pertsona guztiei “immigrantearen” etiketa jarriko diegu, honek dakartzan konnotazio negatibo guztiekin.

*Gureekiko ezberdinak diren ezaugarri kultural ezberdinak
dituzten pertsonen buruz ditugun aurreiritziekin amaitzeko
lehenengo pausua besteei buruz ditugun estereotipo eta
aurreiritziak identifikatzea da.*

3. ESTEREOTIPO eta AURREIRITZIAK

3.1. Zer dira estereotipo eta aurreiritziak

Askotan estereotipo eta aurreiritziez hitz egiten entzun dugu, baina zer diren ba al dakigu? Irakurtzen jarraitu aurretik, hemen duzu termino bakoitzaren definizioa:

ESTEREOTIPOAK

Ezaugarri,
nolakotasun

edo ahalmen berberak dituzten pertsoneri edo taldeei buruz izaten den pertzepzio gehiegizko eta sinplifikatua.

<http://es.wikipedia.org/wiki/Estereotipo>

AURREIRITZIAK

Talde baten parte
den pertsona
batekiko jarrera

mesfidati eta etsaitasunezkoa, arrazoi bakarra talde horretakoa izatea delarik. Taldekoei denez, talde osoari ezartzen zaizkion ezaugarri negatiboak ezartzen zaizkio indibiduoari.

<http://es.wikipedia.org/wiki/Prejuicio>

3.2 Gure aurreiritzi eta estereotipoak identifikatzen ikasten

Konturatu zarenez, aurreiritziak gaizki ezagutzen dugun zerbaiti buruzko ideiak dira. Esan bezala, immigrazioari buruz dugun informazioa eskasak da, horregatik gai honi buruz dugun iritzia ere okerra izan daiteke.

Aurreiritzi eta estereotipoak pertsonen arteko harreman positiboak saihesten dituen lehen oztopoa dira. Izan ere, zaila egiten zaigu norbaiti hurbiltzea aldeztu aurretik berari buruzko iritzia zehaztuta daukagunean!

Hala eta guztiz ere...

Estereotipo eta aurreiritziak pertsona guztien artean ematen dira.

Entzun al duzu inoiz gazteei buruzko aurreiritzi edo estereotiporik?

“Jende gazteari ez zaio ezer axola”

“Jende gazteari gauza berriak, materialak besterik ez zaizkio interesatzen”

Ados al zaude esaten dutenarekin? Uste al duzu egia dela?

Honek zu irudikatzen al zaitu?

Ez al duzu inoiz emakumei buruzko aurreiritzirik entzun?

BA AL ZENEKIEN...

Emakumeek, emakume izateagatik soilik diskriminazio bikoitza jasaten dutela? Diskriminazio honek emakumearen bizitzaren aspektu asko ditu bere baitan: lanekoa, soziala, hezkuntzakoa ...

Hauen artean, guztiz irrealak diren emakumeen edertasunari buruzko estereotipoak agertzen dira.
Ez al da hauekin apurtzeko garaia?



"Bosnian girl" 2003 argazkia Šejla Kamerić artista bosniarrarena da. Pertsonen eta batez ere emakumeen aurkako estereotipo eta aurreiritzien kontrako salaketa da. Obra proiektu publikoa bezala eraiki zen: kartelak, panel publizitarioak, iragarkiak aldizkarietan, postalak ... Argazkian agertzen den mezua soldadu holandar ezezagun batek idatzi zuen Potocari, Srebrenica, kuarteleko pareta batean 1994 eta 1995 artean. Holandako Armada Errealeko tropa hauek, Nazio Batuen Babeserako Indarraren parte ziren (UNPROFOR) Bosnia eta Herzegovinan, eta Srebrenicaco zonalde segurua babestea zen euren lana.

iturria: <http://sejlakameric.com>

Immigrazioari buruz ditugun aurreiritziez kontziente izateko, galdeiozu zure buruari:

Zer da immigrazio hitza entzuterakoan burura datorkizun lehen gauza?

I am an African man

Zer iruditzen
zaizu bideo
hau?



<http://www.youtube.com/watch?v=qSEImEmEjb4>

Estereotipo eta aurreiritzi hauek ez dira errealitatean oinarrituriko pentsamendu arrazional batetik sortzen. Alderantziz, gure imaginarioan ezarri dizkiguten beldurretatik elikatzen dira. Horregatik da hain zaila hauetaz libratzea! Sentimendu bat dira, eta ez arrazoizko pentsamendu batetik sorturiko ideia, eta horixe da arriskua. Aurreiritzi eta estereotipoen arazoa pertsona edo kolektibo konkretu bat diskriminatzeko balio dutenean agertzen da.

Inmigrazioari buruz dituzun estereotipo eta aurreiritziak desmuntatzeko mila eta bat datu ematen badizkizute eta zure pentsatzeko era aldatzen ez ba da, gelditu zaitez une batez eta aktiba ezazu zure ...

“susmometroa”!!

Gainera ... aurreiritzi eta estereotipoetatik erlazionatzeak konpontzeko oso zailak izango diren gatazkak ekar ditzake!

3.3 Pentsatu positiboki

Migratzen duten pertsonak dakarten bagajea (euren kultura, baloreak, hizkuntza, nortasuna, gastronomia ...) batzuetan elkarbizitzarako deserosoa bezala ulertzen dira, agian gu ohituta gaudenaren oso ezberdina delako. **Baina elkarbizitzan pertsona bakoitzak erlazioei egiten dizkien ekarpen berri hauek guztiontzako esperientzia positiboak bezala ikusi behar dira.**

Ez al zaizu gustatzen lagunekin pizza jatera joatea? Pintxoak jatera joatea edo raggae kontzertu batera joatea bezala? Gustu ezberdinak dituzten pertsona ezberdinen artean gertatzen den hartu-emanari esker, ikusteko eta pentsatzeko era berriak ikasten ditugu, musika berria entzuten dugu, etab.

Hartu-eman positibo hau egunero aurkitzen ditugun pertsona guztien artean ematen da. Gutariko bakoitzak gure berezitasunak ditugu, erlazioak hasteko modu ezberdinak, besteekin egoteko, janzteko era ezberdinak, gustu eta uste ezberdinak. Horregatik da horren garrantzitsua azpimarratzea kulturartekotasuna ez dela beste kulturetako pertsonekin ditugun erlazioetan bakarrik geratzen. **Pertsona guztiak (bakoitza paregabea izanik) bizi den tokiarekin gustura sentitzen diren eta direna, sentitzen dutena, egiten dutena eta konpartitzen dutenagatik baloratuak sentitzen diren espazio bat eratzea da asmoa.** Elkarbizitzan konpartitzen dugun espazioan, aberaste pertsonala pertsonen arteko hartu-emanen sortzen da: ematen duzu eta ematen dizute.

3.4 Zergatik pertsona batzuegan ez dugu ezberdintasuna ikusten?

Gure eguneroko bizitzan gurekiko oso ezberdinak diren pertsona ezberdin askorekin erlazionatzen gara, baina ez diogu garrantzirik ematen, batzuetan ez gara ezta ezberdintasun hauetaz ohartzen.

Ezberdintasuna ezaugarri kultural ezberdinak dituzten pertsonengan ikustera ohituta gaude.

Egoera hauetan, pertsona batzuekin erlazionatzerakoan, ezberdintasunek pisu handiagoa hartzen dute. Batzuetan gure arteko mugak bezala ezarri daitezke!

Baina, guztiok horren ezberdinak bagara, zergatik daukagu ohitura “kulturalki ezberdinak” diren pertsonak seinalatzeko?

Kulturalki ezberdina den pertsona bat identifikatzen dugun momentuan “ezberdintasunaren eskanerra” deituriko pilotu automatikoa pizten dugu, pertsona horrek gurekin konparatuz duten ezberdintasun guztiak azpimarratuz. Pilotu automatikoi hau berezitasun batzuekin ziztu bizi pizten da: azentua, hizkuntza, azalaren kolorea, identitate sinboloak, janzteko erak ...

Pentsatu al duzu onoiz zenbat gauzetan ezberdintzen zaren zure lagunez, lehengusuez, amaz, aitaz?

Inoiz pentsatu baduzu ... mila eta bat ezberdintasun daude!

Arreta ezberdintasun horietan etengabe jarriko bagenu, ez ziguten erlazio bat eratzen utziko. Komunean ditugun gauzetan arreta jartzeak familia eta lagunak izatea ahalbidetzen du, gauza komunek ezberdintasunen gainetik batzen gaituztelako eta garen bezalakoak izaten uzten digutelako.

Erlazionatzeko modu hau, pertsonak euren berezitasunengatik “ezberdinak” bezala tratatzen ez ditugunean, kulturarteko elkarbizitza deitzen da.

Gustatuko litzaizuke beste kulturekin komunean daukazuna jakitea?

**Adibide bat jartzearen ...
Bertsoak eta bertsolaritza!**

Ba al zenekien inprobisatzearen artea Mexiko, Maroko, Sicilia, Portugal, Georgia eta beste herrialde askotan ere ohikoa dela?

iturria; <http://www.argia.com/argia-astekaria/1916/>

[hizkuntza-desberdinetako-bertsolariak#gehigarria-](#)

[munduen-arteko-lokarri](#)



4. PERTSONA BAKOITZAREN IDENTITATEA BALORATZEN

Gure identitatea ezaugarri pilo batek eratzen du: altua, lotsatia, alaia, sentikorra, errugbi jokalaria ...

Zein da zurea?

Pertsona bakoitzaren identitatea bizitzan zehar jasotzen ditugun alderdi ezberdinez eratzen da eta hauek gure izateko eta egiteko eran modu normalizatuan sartzen ditugu. Alderdi hauetariko batzuk nahita jasotzen ditugu, besteak inkontzienteki, eta guztien laguntzarekin garena gara.

Bizitzan esperientzia berriak izaten ditugun heinean, gure identitatea ere aldatuz joaten da. Bestalde, inguru batean onargarriak diren ekintzak beste batean agian ezin dira onartu. Horrela, gure beharren arabera moldatzen joateko ahalmena daukagu.

Gure identitatea bizi ditugun gauzekin, esperientziekin, ezagutzen ditugun pertsonekin eta ikasten dugunarekin moldatuz joaten da. Identitatea beraz ez da estatikoa den zerbait, dinamikoa baizik!

Agian definizio batek *identitatea* zer den hobeto ulertzen lagunduko dizu:

Identitatea:

Persona bat inoren berdina ez izatea egiten duen elementuen multzoa.

Elementu emaigabe
hauek etengabeko
mugimenduan daude.

[turria:www.orbitadiversa.wordpress.com](http://www.orbitadiversa.wordpress.com)

Galdetu ondorengo galderak zure buruari:

Duela 3 urte zinen berbera al zara?

Zenbat pertsona ezagutu dituzu azken 2 urteetan?

Zein esperientzia bizi dituzu beraiekin?

Uste duzu jende berria aurkitzean zure pentsatzeko eta egoteko era aldatu dela?

Zer ikasi duzu?

Bizi garen kontsumoaren gizarte honetan, sarritan gure identitatea gure itxurarekin edota janzen dugunarekin erlazionatzen dugu. Hala ere, identitateari hitz egiterakoan, ez gara nike edo converse eramateari buruz ari, edo mugikorraren markari buruz ari. Askoz sakonagoa den zerbaiti buruz ari gara, identitatea beste zerbaitek markatzen du: bakoitza nola sentitzen den, bizi den, baloratzen duen, etab.



Bakoitzaren identitatea mantentzea eta identitate horri leiala izatea ez da erreza, batez ere horrenbeste presio dauden gizarte batean. Baina identitatea ezinbestekoa da: gure buruarekin ondo sentitzen eta mundua garen horretatik ulertzen laguntzen digu. Erlazionatzeko ere beharrezkoa da, gure auto-estimua eta konfiantza sendotzen ditu eta besteak hobeto ulertzen laguntzen digu. Azken finean, norbait bere buruarekin ondo sentitzen denean ez du inoren identitatearen aspekturik gutxiesteko beharrik, ezta?

Hala ere, esan dugun bezala, identitatea etengabe aldatzen da, beraz, nahiz eta zarenarekin oso pozik egon, ez da arraroa izango bihar zure identitatea eratzen duten berezitasun berrieekin esnatzea!

Bakoitzaren identitatetik sozializatzeko erarik hoberena asertibotasuna da. Proba ezazu!

5.KULTURARTEKOTASUNA ETA BIZIKIDETZA

Kulturarteko elkarbizitza zer den azaltzeko pista ugari eman dizkizugu jada, baina orain, gaian murgiltzea tokatzen zaigu!

5.1.

Kultura- artekotasuna nola identifikatu

Kulturarteko elkarbizitza bizi nahi dugun gizarte ereduaren ikuspegi berria da.

Eredu honek nahi duena,osatzen duten pertsona guztiek tokia duten eta euren identitateetik, horizontaltasunetik eta errespetutik adierazteko eskubidea duten gizartea lortzea da.

Gaur egun ez da eredu gisa baliagarria izan ahal zaigun modelo konkreturik existitzen, baina helburu hau duten inizatiba ugari daude.

Kulturarteko elkarbizitza kontzeptu nahiko berria da, beraz gaur egun oraindik, gizartearen errealitateak aldatzen diren heinean definitzen ari da.

Garrantzia eman nahi diogu espazio berbera konpartitzen dugun pertsonoi batzen gaituzten aspektuei, eta ez banatzen gaituzten ezberdintasunei. Azken hauek elkarbizitza-gatazka ugarietara bultzatzen gaituzte eta gizartea eratzen duten kolektibo ezberdinen segregazioa sustatzen dute.

Gizartean aurkitzen diren gatazketariko asko aurreiritzi eta estereotipo kulturaletan oinarritzen dira.

Auzokidea bere identitate kulturalagatik distortsionatuta eta estigmatizatua ikusten dugun bitartean, ezinezkoa da elkar-ulertzerako kontziliazio espazioak sortzea. Kulturarteko elkarbizitzak identitateak integrazio arazorik ekarriko ez duen eta eskubideen berdintasunean oinarrituko den elkarbizitza bilatzen du.

5.2.

Ezberdintzeak berdintasun eza dakar.

Lehen ikusi dugun bezala, denok gara ezberdinak. Pertsona bakoitza bakarra da, ez daude bi pertsona berdin. Ikuspuntu honetatik gure inguruan bizi diren pertsonekin ulertu gaitezke. Horregatik, **ez duzu uste identitate kultural ezberdina duten pertsonetikiko egiten den ezberdintzearekin apurtzen hasi beharko ginela? Izan ere, ezberdintze etengabe honek ezberdintasunera garamatza ...**

Kulturarteko elkarbizitzan pertsona bakoitzak gizartean nola parte hartu nahi duen erabakitzen du, horregatik epaitua izan gabe, beti ere pertsona orok bete behar dituen elkarbizitzarako arau komunak errespetatuz.

Erraza izan daiteke elkarbizitzaren ideia hau eguneroko bizitzara eramatea, baina ezinbestekoa da pertsona guztiak gure eskubide berdinekin ikusteko betaurrekoekin ikustea eta edozein diskurtso baztertzailearen aurrean **susmometroa** piztuta eramatea!

5.3.

**Giza Eskubideak
bermatzen
dituen
elkarbizitza
komuna**

Kulturarteko elkarbizitzaz hitz egitean, garrantzitsua da Giza Eskubideez ez ahaztea, izan ere, eskubide unibertsal hauetatik abiatuz pertsona guztien arteko elkarbizitza positiboa lor dezakegu estatuen babesarekin. Hauetariko batzuk betetzen ez direla pentsatu ahal badugu ere, ez dugu etsi behar den denak errespetatuak izan behar direla defendatzen dugunean. Ondoren horietako batzuk aurkezten dizkizugu!

Bete ezazu lehen atala!

Ba al da faltan botatzen duzun eskubiderik?

2. atala

Gizaki orori dagozkio Aldarikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larri-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikako edo bestelako iritzi, sorteri edo gizarteko jatori, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

3. atala

Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. atala

Inor ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklaboen salerosketa oro.

5. atala

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

7. atala

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babesa izateko eskubidea. Denek dute Aldarrikapen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea.

13. atala

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.
2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

15. atala

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.
2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

9. atala

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

14. atala

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.
2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurkako egintzak direla eta ere.

18. atala

Pertsona orok pentsamendu, kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

22. atala

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa.

5.4.

Negatiboak al
dira
elkarbizitzatik
datozen
gatazkak?

Askotan, kultura ezberdinetako jendearekin gatazkak daudenean, ez dira kultura ezberdinetakoak direlako sortzen, edozein elkarbizitzan gertatzen direlako baizik. Zenbatu ditzakezu egunean zehar dituzun gatazka guztiak? Zure laguntaldea? Etxean? Eskolan?

Gure eguneroko bizitzan gatazka ezberdinak gertatzen dira, eta batzuetan tartean gaude. Ez zaizkigu gustatzen, baina horrek txarrak direla esan nahi al du? Gatazkak beste pertsonari hurbildu eta gure ikuspuntua zabaltzen lagunduko diguten iritziak trukatzeko aukera dira. Beraz, ez dira zertan negatiboak izan behar!

Gatazka sozialak saihestezinak dira, bi pertsona berdin existitzen ez direlako eta batek desio duena bestearen kalterako izan daitekeelako.

Gakoa gatazkarekiko jarrera positiboa izatean datza. Biziko dituzun gatazka ezberdinei aurre egiteko erreminta bat proposatzen dizugu: UMOREA.

Umoreak gure atsekabe

pertsonaletik urruntzen

laguntzen gaitu, gure buruaz

barre egin eta gatazka

ikuspegi bakegileagotik

ikusi ahal izateko.



Umorea beste pertsona batzuegan irribarrea edo barrea eragiteko jendearen gaitasuna edo kualitatea da, hitz, keinu, objektu edo bestelako egoeren bidez. Alaitasuna sortzen duen giza komunikazio mota bat da.

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Umore>

5.5.

Praktikak

Laburbilduz ...

“Immigrazioaren
munstroa desmuntatu
dugu”, immigrazioa

mugetatik zelatan mehatxatzen gaituen gauza
arrotza eta arriskutsua dela pentsarazten digun
hori.

Gure pertsonarteko erlazioetan aurreiritzi eta
estereotipoek zenbat kalte egiten duten ere ikusi
dugu.

Errespetatu, onartu eta bakoitzaren identitatea
baloratzeak besteak ez gutxien laguntzen digu,
berdintasunez eta errespetuz erlazionatzeko.

Kulturarteko elkarbizitzaren benetako esanahian
murgildu gara.


**Bada garaia guzti hau praktikara nola eraman
dezakegun komentatzeko!**

↓ Lehen esan dugun bezala,
kulturarteko elkarbizitza
pertsona guztien inplikazioa
behar duen prozesu berria da.
Horregatik da horren
garrantzitsua gure eguneroko
bizitzan txipa aldatu eta
kulturartekotasunari
dagokionez errespetuan
oinarrituriko jarrera izatea.


Proposatzen dizugu zuk, zure
kabuz, lagunekin eta
inguruarekin, kulturarteko
espazioak eraikitzea. Zuk
ikusten duzun errealitatea
aldatzeko erreminta guztiak
dituzu, kulturarteko
elkarbizitza egunero-egunero
sortzen baitugu!

NONDIK HASI?

Orain arte ikusi duguna praktikan jartzen hasteko, badira parte hartu dezakezun inizatiba pila.



Kulturarteko elkarbizitzaz ari garenean ondoregoa gogoratu dezakegu ...



GLOSARIOA



ASERTIBOTASUNA (18. orria)

Giza harremanetan, **asertibotasuna** [pertsona](#) batek besteak erasotu gabe edota besteekiko menpekotasuna erakutsi gabe jokatzeko duen gaitasuna da.

[Diskurtso asertibo](#) eraginkorra bere kulturako koordinadetan ondo integratua behar du. Gure mendebaldeko kulturaren, saihestu behar dira diskurtso oldarkorregiak. Saihestu behar, halaber, utzikeria edo koldarkeriatzat har daitezkeen jokabideak. Bestalde, saihestu behar jarrera manipulazionalak eta jarrera didaktikoegiak (lezioak ematen ibiltze hori).

Garrantzizko faktoretzat jotzen da [giza baliabideen](#) kudeaketan ere, kudeatzaileak eta enpresako beste eragileek erakundearen helburuei batera ekin eta horiek arrakastaz lortzeko

Iturria: <http://eu.wikipedia.org/wiki/Asertibotasun>



Bisexualitatea

Emakume zein gizonak gustuko dituzten emakumeak. Emakume zein gizonak gustuko dituzten gizonak.



Desberdintasuna / Berdintasun eza

Desberdintasuna hitza arlo askotan erabiltzen da: matematiketan, ekonomian, gizarte zientzietan, etab. Bere zentzurik zorrotzenez beste baten antzekoa ez den zerbait esan nahi du. Kasu honetan arlo sozialean eta bereziki kulturartekotasunean duen aplikazioa da interesatzen zaiguna.

Tamalez, kultura taldeen artean ezberdintasunak daude. Gutxiengoan dauden taldeek ez dute pisu berdina gizartean - hau da, ez dira berdinak - gehiengoaren taldearekin konparatzen baditugu. Gutxiengoek segregazioa eta gutxiespena pairatzen dute, eta baliabideetara duten heltzea konplikatua izan daiteke.

Gizartean beste ezberdintasun batzuk ere badaude, genero desberdintasuna edo beste ahalmen batzuk dituztenen ezberdintasuna, esaterako.

Diaspora

Euren herrialdea utzi eta planetaren beste toki batzuetan ezarri ziren herrialde berdineko pertsonen multzoa da. Hauetariko askok euren jatorrizko herriari eta komunitateari oso atxikiak daude. Horregatik euren jatorrizko lekuarekin loturak mantendu ohi dituzte eta kultura horrekin identifikatzen dira.



GENEROA

Desberdintze sexualaren eraikuntza kulturala azpimarratzen duen kategoria da. Honek esan nahi du gizonen eta emakumeen jarrerak, ekintzak eta funtzioak gizarteak sortuak direla, eta ez daudela biologikoki zehaztuak.

Iturria: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/108>

Homosexualitatea

Emakumeak gustuko dituzten emakumeak eta gizonezkoak gustuko dituzten gizonak. Homosexualitatearen barruan "Lesbianismoa" ere aldarrikatzen da, naiz eta homosexualitatearen barruan sartzen den.



IDENTITATE SEXUALA

Norberak bere buruarekin identifikatzen duen sexua.

INTERSEXUALITATEA

Aniztasun honetan, intersexuala den pertsonaren sexu kromosomikoa (XY/XX), gonadak (testikuluak/obarioak) eta genitalak (zakila/vagina) ez datoz bat. Honen ondorioz emakume zein gizonezkoen ezaugarriak ditu.



Lurralde barneko migrazioak

Lurralde, herrialde, zonalde geografiko edota kontinente baten barruan ematen diren biztanleriaren lekualdatzeari esaten zaio.



Orientazio sexuala (10 orria)

Pertsonak bere sexu bereko, beste sexuko edo bi sexuetako pertsonetara sentitzen duten desioa (erakarpena).



“Hegoaldeko herrialdeak” eta “Iparraldeko herrialdeak”

Esamolde hau Europa, Estatu Batuak, Australia eta Japonia bezalako herrialdeak (herrialde garatuak ere deituak) garatze bideetan daudenekin kontrajartzeko erabiltzen da: Latinoamerika, Afrika eta Asia (Japonia kenduta). Termino hauek erabiltzean ezberdintasun erlazioez ari gara, iparraldeak hegoaldeari egiten dion esplotazioan eta espoliazioan oinarrituak. Ez dira inoiz berdintasuneko baldintzetan garatu.

Berezitasunak – pertsona batenak -

Pertsona bakoitza paregabea izatea egiten duten ezaugarri eta izateko erak.

Bi norabideko prozesuak

Pertsonen arteko komunikazioa bi norabideko prozesuetan oinarritzen denean, alde batetik komunikatze prozesua horizontala eta bi norabideetako izango dela, eta bestetik, komunikazioan parte hartzen duten pertsona guztien sentimendu, ideia eta errealitatearen ikuspuntua balio berbera daukatela esan nahi du.



Harreman horizontalak

Harreman hauetan parte hartzen duten pertsona guztiak berdintasunean daudenean ematen da.

Harreman Interpertsonalak

Bi edo gehiagoren artean ematen den harremana, indibiduo batek beste batekin erlazionatu eta beraz bere bizitzan sartzen denean, beste pertsona ere bere bizitzan sartzen uzten diolarik. Harreman intrapertsonalen aurkakoa da. Hauek pertsona batek bere barnean ezartzen dituen harremanak dira, helburua bere norberakotasuna sendotzea delarik.

Iturria: <http://www.definicionabc.com/social/relaciones-interpersonales.php>

Harreman sinergiakoak

Parte hartzen duten guztien parte hartzean eta kooperazioan oinarritzen da, bakoitzak bere aldetik zerbait egin izan balu baino emaitza hobeagoa lortzeko.



Segregazioa

Gida honetan, arrazoi sozial, kultural, politikoengatik pertsona talde baten marjinazioari eta/edo banatzeari buruz ari gara.

Kontsumo-gizartea

Soziologian eta ekonomian, kontsumo-gizartea XX. mendean garatutako kapitalismoaren aldaera bat da, oinarritzat kontsumoa hartzen duena. XIX. mendean kapitalismo industrialak nagusitu zenean, ekipo-ondasunen ekoizpena izan zen garapen ekonomikoa bultzatu zuena, eskas saritutako langilegoaren azpikontsumoa eta elitearen kontsumoaren nahikoak ez zirelarik. XX. mendean masazko ekoizpena garatu zenean, produktu kopuru itzel horiei irtenbidea emateko erdi mailako klasea osatu zen, masaz ekoiztutako produktu horiek erosiko zituenak. Modu horretan, kontsumoa sistema ekonomikoaren oinarri eta, aldi berean, gizarte-klase guztien erreferentzia sozial eta kultural nagusi bilakatu da. Kontsumo-gizartea buruz hausnarketa sakona egin duten pentsalarien artean Erich Fromm eta Jean Baudrillard (La Société de consommation liburu ospetsuarekin) daude.

Iturria: <http://eu.wikipedia.org/wiki/Kontsumo-gizarte>

Lan prekarioak

Segurtasun ezaz eta ziurgabetasunez egiten diren lanak, bermerik gabe. Behin behineko lanak, gaizki ordainduak, gizarte segurantzarik gabekoak eta langileek egin beharrekoak baino ordu gehiago egiten dituztenak.

Transexualitatea

1940. urtetik erabiltzen den terminoa da. Pertsona batek jaiotzaz duen sexua ez da bere buruarekin identifikatzen duena: ebakuntza egitea erabakitzen duten gizon eta emakume transexualak daude. Ez da gaixotasun bat.